

## **LIBERALISMOAREN ALDEKO EUSKARAZKO SERMOI INPRIMATU BAT, HIRURTEKO LIBERALAREN GARAIAN (1820-1823)**

### **1. Aurkezpena: berriz ere liberalismoaren aldeko euskarazko testuekin, baina berritasunekin**

Artikulu honetan euskarazko testu bitxi bat azaldu nahi dugu, hain zuzen ere, *Tolosaco Santa Marian Urriaren amabost-garren egunean, milla zorzi-reun eta ogueigarren urtean, Don Francisco Maria Aranguren bertaco Vicarioac eguiindako platica izenekoa*. Testu inprimatua da; bertan adierazten denez, *Tolosan: Liburugille D. Juan Manuel la Lamaren Echean*; hala ere, ez da bat ere ezaguna, aurrerago aipatuko dugunez.

Esan bezala, testua sermoi bat da eta, dakigunez, euskaraz idatzitako halako testu asko eta asko gordetzen dira. Hortaz, bitxitasuna formatik baino, gaitik datorkio, izan ere, Espainiako erresuman 1820. urtean berrezarri zen errejimen liberalaren aldekoa da eta orduko kontu politikoaz ari da.

Gogoratzeko da, Karmel aldizkari honetako aurreko ale baten antzeko testu bat jorratu genuela, honako izenburua zuen artikulu batean: «*Cadizko Konstituzioaren aldeko sermoia euskaraz, hirurteko liberalaren garaian (1820-1823)*»<sup>1</sup>.

Oraingo honetan ikertzaile bi aritu gara, izan ere, Javier Esteban Ochoa de Eribek ere parte hartu du artikulu honen

---

<sup>1</sup> Gallastegi, C., «*Cadizko Konstituzioaren aldeko sermoia euskaraz, hirurteko liberalaren garaian (1820-1823)*», *Karmel*, 245, 2004, 39-58 orr.

idazketan<sup>2</sup>. Javier Esteban Ochoa de Eribek berriki honakoak argitaratu ditu: «Una aproximación a la producción impresa en las tierras vascas al final del Antiguo Régimen»<sup>3</sup>, «Mucho más que un libro de bailes. Contextualizando socialmente el discurso de Guipuzcoaco Dantza (1824)»<sup>4</sup> edo «La lengua del rey y las lenguas de sus reinos: por una historia social de las lenguas en la monarquía hispánica»<sup>5</sup> eta, beraz, artikulu honetan jorratutako gaiarekin erabateko lotura du.

## 2. Testuingurua: euskal eliza eta liberalismoa XIX. mendearren hasieran

Topikoak dio euskal elizaren joera XIX. mendearen erabat tradiziozalea izan zela, salbuespenak salbuespen; laburpen modura, hauxe idazten du Coro Rubio historiagileak XIX. mendeko lehenengo urteetako egoera eta elizari buruz: «se inició en esta época un peligroso compromiso antiliberal y absolutista del clero vasco, que se reforzara durante el Trienio liberal (gure testuaren garaia) y explotará en 1833 (lehenengo karlistaldia)»<sup>6</sup>.

---


<sup>2</sup> Eusko Jaurlaritzaren inbestigatzaile bekaduna. Ekonomía, Industria eta Lehiakortasuna Ministerioaren hurrengo proiektuaren parte-hartzaile: HAR2013-48901-C6-4-R «El proceso de la modernidad. Actores, discursos y cambios, de la sociedad tradicional a la revolución liberal, s.XVI-1850», 2014-2017 urteak, HAR2013-48901-C6-R «Retos» izeneko proiektu koordinatuaren barneko deialdiaren barne.

<sup>3</sup> Lan honetan: García Fernández, Máximo (arg.), *Familia, cultura material y formas de poder en la España moderna. III Encuentro de jóvenes investigadores en Historia Moderna*, Fundación Española de Historia Moderna, Madrid 2016, 667-677 orr.

<sup>4</sup> Daniel Bermejorekin batera egindako lana; hurrengo aldizkarian argitartua: *Revista internacional de los estudios vascos*, 60-1, 2015, 8-40 orr.

<sup>5</sup> Lan honetan: Iglesias, J. J., Pérez, R. M. eta Fernández, M. F. (arg.), *Comercio y cultura en la Edad Moderna. Actas de la XIII Reunión Científica de la Fundación Española de Historia Moderna*, Universidad de Sevilla, Sevilla, 2015, 1587-1600 orr.

<sup>6</sup> Rubio Pobes, C., *Revolución y tradición. El País Vasco ante la Revolución*



Hala ere, azken urteetan plazaratutako lan eta datuei esker, elizgizon euskaldun batzuen lana ezagutu dugu, betiere liberalismoaren ildotik<sup>7</sup>.

*liberal y la construcción del Estado español, 1808-1868*, Siglo Veintiuno de España Editores, Madril, 1996, 11. or.

<sup>7</sup> Ikus, laburpen modura, gure artikulua: Gallastegui Aranzabal, C., «La difusión del Liberalismo en el País Vasco: de la *Carta Pastoral* de Luís de Borbón (1820) a *El liberalismo es pecado* (1887)», *Estudios de Deusto*, (ale berezia: *Homenaje al Profesor Don Pablo Lucas Verdú*) 51-1, 2003, 191-209 orr.

Oro har, hauek dira joera liberalaren euskarazko emaitzak XIX. mendearren hasieran:

- a) Luis de Borbon Espainiako Erregearen osaba eta Toledo artzapezpikuak Konstituzioaren eta sistema politiko berriaren aldeko testu garrantzitsu bat argitaratu zuen, 1820ko martxoaren 15ean<sup>8</sup>. Artzapezpikuaren gutunak erregimen berriaren eta elizaren arteko bateragarritasuna aldarrikatzen zuen, hau da, liberalismoaren eta erlijioaren arteko bateragarritasuna. Luis de Borbonen hitzen ondotik, Fernando VII.aren adierazpena, martxoaren 10ekoan, zetorren. Testu horrek euskarazko argitalpena ere izan zuen, 1820an bertan, Bilbon: *Luís de Borbon, por la divina misericordia... / Luis de Borbon, Jaungoicuaren onerichiz...* Argitalpen elebidun horren itzultzale, Bizenta Mogel, testuak berak bukaeran dioenaren arabera («Traducida del romance al bascience, por Doña Vicenta de Moguel»)<sup>9</sup>.
- b) Liberalismoak sistema politiko berriaren zabalkundea aurreikusi zuen. Hori dela eta, eskoletan erabiltzeko eskuliburuak idatzi ziren, katixima modura atonduta, umeek eraentza berria ezagutu zezaten. Gure inguruko eskoletan, gaztelaniazko aleez gain, euskarazkoak ere zabaldu ziren. Horien adibidea, Tolosan argitaratutako *Españiaco uritar constitucionales cartilla civilia / Carti-*

---

<sup>8</sup> Erdarazko testuak hainbat eta hainbat edizio izan zuen. Luis de Borbon pertsonaiari buruz, Rodríguez López-Brea, C. M., *Don Luís de Borbón, el Cardenal de los liberales (1777-1823)*, Junta de Comunidades de Castilla-La Mancha, Toledo, 2002.

<sup>9</sup> Euskarazko testua gaur egungo liburu honetan irakur daiteke, Altzibar, X., *Bizkaierazko idazle klasikoak*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1992, 339-351 or. Testuari buruzko xehetasunak, Urquijo, J., «Notas de Bibliografía Vasca. Carta Pastoral en vascuence del Primado de las Españas», *Revista Internacional de los estudios vascos*, 25, 1934, 678-682 orr. Egia esan, ezin dugu Bizenta liberaltzat hartu, Luis de Borbonen itzulpena gorabehera; gertuago dago, antza, sasoi horretako Bilbon zegoen gune euskaltzaletik; gainera, Gabonetako bertsoak idatzi zituen eta horietako batzuk kontserbadoreak dira; azkenik, Bizkaiko erakunde publikoen zenbait paperen itzultzale izan omen zen baina horren frogarik ez dago.

*lla civil del ciudadano español constitucional* delakoa<sup>10</sup>. Gipuzkoako Aldundiak, 1820ko azaroaren 14ko zirkularren bidez, liburutxoaren berri eman eta haren erabilera gomendatu zuen. Gure ustez, euskarazko itzulpenaren arduraduna apaiz bat izan zen<sup>11</sup>.

- c) Badago bigarren katixima bat euskaraz, Konstituzioa eta egitura politiko berria umeen lehen eskoletan azaltzeko: *Jaqin-bide Iritarautia Espaniaco Neurquidaren edo Constitucio berriaren erara adrezatua*. Kasu honetan, aldiz, testuak ez zuen argia ikusi eta eskuizkribu modura ezagutu dugu gaur egun. Itzulpenaren egilea Mutiloako bikarioa, Jose Felix Amundarain Muxika dugu<sup>12</sup>.
- d) Jose Felix de Amundarain abadea ere beste testu interesarri baten egilea dugu<sup>13</sup> Espainiako lege baten itzul-

<sup>10</sup> *Espaniaco uritar constitucionalen cartilla civil / Cartilla civil del ciudadano español constitucional*, Tolosa, Juan Manuel de la Lama, 1820. Testu elebidunaren transkripzioa Interneten ikus daiteke: <http://www.vc.ehu.es/gordailua>; euskarazko zatiaren transkripzioa paperean ere badago: *Espaniako uritar konstituzionalaren kartilla zibila*, Hiria, Donostia, 2003.

<sup>11</sup> Ustezko egileari eta beste xehetasun batzuei buruz, ikus Gallastegui Aranzabal, C.: *Ibidem*, 201-202 orr.

<sup>12</sup> Eskuizkribuaren faksimila, *Jaqin-bide Iritarautia Espaniaco Neurquidaren edo Constitucio berriaren erara adrezatua Erritarren arguidoraraco, gazteen icasbideraco eta Escolamaisuen usoraco. Erderatic Eusquerara itzulidu Apez Vicario D.D.J.J.A. Gipuztarrac. 1820n urtean*, Ararteko, Eusko Legebiltzarra / Parlamento Vasco, Vitoria-Gasteiz, 1991. Eskuizkribuaren egileari buruz, Ibisate, A., «El original castellano del *Jaqin-bide Iritarautia* del Dr. D. J. F. A.», *Scriptorum Victoricense*, 39, 1992, 222-227 or.; Ibisate, A., «El Doctor Don José Feliz Amundarain (Cegama 1755-Mutiloa 1825), autor del *Jaqin-bide Iritarautia* (1820)», *Boletín de la R.S.B.A.P.*, L, 1994-1, 159-169 or.; San Martin, J., «Dr. D. Jose Felix Amundarain Mujika eta Cadiz-ko Konstituzio euskaratuaz zenbait ohar», *Egan*, L, 1998, 242-244 or.; Idiaker, A. et al., *Jose Felix Amundarain Muxika (Zegama, 1755-Mutiloa, 1825), Goierriko Euskal idazle ezezaguna*, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea, Lazkao, 1998.

<sup>13</sup> Penintsulako lege testu baten lehenengo itzulpena; ikusi: «La primera traducción al euskera de un texto parlamentario español», *Nomografía eta arau-idatzeta elebiduna / Nomografía y corredacción legislativa*, Deustuko

pena egin baitzuen. Testuak *Reglamento provisional para la Milicia nacional* delakoa ematen du euskaraz; 1820ko udan emandako araudi horren arabera, mili ziako taldeak sortu behar ziren herriz herri; Amundarrainen ekimenari esker posible izango zen ahozko mailan euskaraz antolatutako jarduera horri euskarazko oinarri idatzia ematea, baina testu hau, katiximarena bezala, argitaratu eta zabaldu gabe geratu zen, paper zaharren artean ahaztuta gaur egun arte.

- e) Artikulu honen hasieran gogora ekarri dugun sermoia, Martin de Galarragaren, eskuz idatzita. *Karmelen jorratu* genuen, esan bezala.
- f) Oraintxe aztertzen ari garen testua, hau da, joera liberal horren euskarazko beste emaitza bat, apaiz-sermoigile zinez liberal baten lana, alegia<sup>14</sup>.

### 3. Testu mota: sermoi politikoa

Batzuetan elizan emandako sermoietan erlijioaz gaindiko gaiak aipatu dira<sup>15</sup>. Hirurteko liberalean sermoien erabilera politikoa areagotu zen<sup>16</sup> eta esku artean dugun euskarazko testua, dudarik gabe, joera horren barruan kokatzen da.

---

Unibertsitatea, Bilbo, 2009, 145-184 orr.

<sup>14</sup> Aipatutako testu guztiak prosaz idatzita daude. Badira sasoi horretako bertsoak, liberal eta «serbilen» arteko liskarrei lotuak. Antonio Zavalak sasoi horretako bertso sorta bi dakartzia, baina ez dira liberalak: «Markina, Xemein ta Etxebarrik irurak bat agur egiten deutse Konstituzioneko damiari» eta *«Donostian soldadu»*; Zavala, A., *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak*, 2. arg., Auspoa, Tolosa, 1993.

<sup>15</sup> Egido López, T., «Los sermones: retórica y espectáculo», Ribot García, L. A. eta Rosa L. de (koor.), *Trabajo y ocio en la época moderna*, Editorial Actas, Madril, 2001, 87-110 orr.; Egido López, T., «Sermones, oposición al gobierno y expulsión de los jesuitas. (Uso político de la predicación)», Franco Rubio, G. A. eta Pérez Samper, M. A. (koor.), *Herederas de Clio: Mujeres que han impulsado la Historia*, Mergablum, Sevilla, 2014, 139-154 orr.

<sup>16</sup> Dufour, G., *Sermones revolucionarios del trienio liberal: 1820-1823*, Instituto de Cultura Juan Gil-Albert, Alacant, 1991.

<sup>2</sup> egün ditzaquean gaitz, eta calteetatic; ondo errotzik, eta gueyago ebaquiteen duenie, mingain tean instrumentu gaistogorikoa gaitso bat, eta bezañez badagu, eta adicen ez baziyo-ere, gutximilietan negarra, desconfianza, tristeza, eta bezdurra sartean duelat; ondo zequiente becela mire, gaito batzenat, ez dagoala gauza ondo, ez zuzenic, eta garbirio munduan; gauza gutxiagorri, gobernuari, gobernaltzalei, eta oyec oguinetan ditusuen legueai: gusia desfiguratu, batzuetan gueituz, beste batzuetan guchituz, eta beti gauzak goicoaz bera, edo bestaz gora naspillatuaz: beren aoa, Jesu-Cristo berac Evangelio Santuan eracusten digun becela, gauzak diran eran, eta eguna garbia esateko bai, eti iñaki bear ez litusqueten demboira berean, maliciosa oso-bat baicican ez dirala, Santiago Apostoloak eracusten digunez: *universitas iniquitatis*; ichaso beti gira-bira, eta iñoloz ere sosegat, eta paquerie, ez duen bat: *iniquitatum mare*; En orra, nere Parroquiar maiteak, zuen anima, eta corporutzaren beraren onerako gaur ematen diztedan conseguia, eta betiko adierazti naiz nuqueas eguaia; prudenteak, eta begiruiauek izatea zuten; ez libertade gueyegui ematea zen miligafat; gauzak diran becela esater, esatekoit

<sup>3</sup> badira; eta esan baño len esamifatu, eta jaquitera ala ote diran, edo ez, *ut non decinet cor meum in verba multiae*, David Santuari aini viotzez. Jaungoicoari escatzen cion becela. ¡Ah! garbi, eta bear becela esango baguenitusue beti gauza gusia, combai obezgoa izango litzaque mundua! Cembait sentimentu, naigabe, eta penea guchiorequin gaurco egunean berean izango liraua, aditu dieranetz, aita, eta ama on, inocente, eta ez jaunin asco!

Erreinuko Diputaduak gure gobernu eta Erreguerrekin batera erabakia dute, Egerritu guchiu dedilla; lenago eun eta ogei milita guizonezgau zan toquian, ez dedilla orain berrogeitza amar millatikan igaro: baño nola Nacioak gorde bear duen bere errespeto eta aundihasuna campoa, lenago becela campoco etseyak etorizera arrebira ez ditecen; nola tropa vici labur au asco ez dan Erreinuko Gatzetelu, Plaza, Portu ta mugae gordeaz, gañera, Erreriuaren barrungo premiai beguraitzeco; Erti Provincietako seguridatza, paueka, ta sosegaba mantenteko; orregatik agindu dute moludat dedilla. Milicia nacional bat, eta asentatu ditecela Milicia onetan emezorci urtetik berrogei ta amarrerañoko guzton gntziaz Erreriatoko ordena ona, ta paueka manten dezaten, tropa vici bere lanban ari dan bitartean. Eta ecin poz audiarequin icusi bear guenduan nacio jagnin-

Riegoren altxamenduaren ondorioz, Cadizko Konstituzioa berrezarri zen eta berehala hasi ziren araubide eta biziera liberalaren emaitzak. Gure gaiari dagokionez, Espainiako Gorreetik, 1820. urteko apirilaren amaieran, hurrengoa erabaki zuten: «todos los Curas Párrocos de la Monarquía, o los que hicieron sus veces, expliquen a sus feligreses en los domingos y días festivos la Constitución política de la Nación, como parte de sus obligaciones; manifestádoles al mismo tiempo las ventajas que acarrea a todas las clases del Estado, y rebatiendo las acusaciones calumniosas con que la ignorancia y la malibilidad hayan intentado desacreditarla»<sup>17</sup>.

<sup>17</sup> 1820ko apirilaren 20an emandako dekretua.

Beraz, pulpitudik, orduko komunikabide nagusitik, liberalismoaren aldeko hitzaldiak entzungo ziren<sup>18</sup>. Zein izan zen orduko apaizen jarrera? Gerard Dufourren ustez, hiru talde bereiz daitezke: «los prudentes, que jugaron a dos barajas, mostrándose constitucionales con los liberales y realistas con los serviles, hasta que la entrada en España de los Cien Mil Hijos de San Luís les evidencie el camino que habían de seguir»; bigarrez, «los que hicieron del púlpito el primer baluarte de la defensa del Trono y del Altar, y excitaron abiertamente al pueblo a declararse a favor del rey neto (o sea, absolutista)»; eta, azkenik, «el clero que anduvo francamente por la senda constitucional»<sup>19</sup>.

Euskal elizetan ere, Konstituzioaren abantailak eta onurak argitu eta azalduko ziren, batzuetan gogoz eta bihotzez, beste batzuetan, halabeharrez. Baditugu, kontrako jarreraren adibideak: Coro Rubioren esanetan: «La labor de oposición al régimen liberal se inició muy tempranamente, resistiéndose los párrocos a la lectura de la Constitución y a la publicación de las órdenes y decretos en la iglesia. Sólo tras un mandato expreso del obispo accedían a explicar el texto gaditano desde el púlpito, pero lo hacían buscando la hora de menor asistencia a misas o se expresaban de tal forma que más parecía la tribuna de un conspirador que la cátedra del Espíritu Santo»<sup>20</sup>.

Eta egoera laburbilduz, Gipuzkoako orduko agintari nagusiaren (Villafuerteseko kondea) hitzak: «son en mayor número las que, con su silencio o con explicaciones en que no se di-

<sup>18</sup> Apaizen eraginari buruz Felix Llanosek dio: «¿Podía haber arraigado este liberalismo en las poblaciones rurales? En algunos lugares, como Amézqueta o Segura hubo voluntarios entre molineros, boticarios, confiteros, cirujanos o carpinteros. Siempre dependiendo también del entusiasmo constitucional de algún clérigo local. Pero no fue el caso habitual», Llanos Aramburu, F., *El trienio liberal en Guipúzcoa (1820-1823)*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 1998, 504-505 orr.

<sup>19</sup> Dufour, G., *Ibidem*, 38-39 orr.

<sup>20</sup> Rubio Pobes, C., *Ibidem*, 21. or.

simula ser forzadas y no conformes con sus sentimientos, tienen a los sencillos feligreses en la ignorancia de las verdades que les importa saber y que apenas pueden saber por otro conducto que el de sus párrocos»<sup>21</sup>.

Esku artean daukagun testura bueltatuz, deigarriena ez da eduki politikoa, baizik eta duen izaera inprimatua. Oker ez bagaude, ez dago aurretik bakarka inprimatutako euskarazko sermoirik. Antzera gertatu zen gaztelaniazko ekoizpenarekin: mende hasieran (1800-1839), gertakizun politiko berriak direla medio, Bizkaian zazpi argitaratu ziren; Gipuzkoa, sei; eta Araban, zazpi.

Francisco Maria Aranguren-en sermoian milizia nazionala aipatzen da. Sermoiak milizia horren alde egin nahi du eta sorrazitako zenbait zalantza eta beldur uxatu (kontuan hartu behar da, gainera, hilabete batzuk arinago beste milizia mota bat sortu zela<sup>22</sup>). Agintari liberalak honakoak azaltzen saiatu ziren: miliziak ez du zerikusik ejerzituaren deialdiekin eta miliziaren antolaketak euskal lurrealdeetan zegoen defentsa sistemadekin lotura handia du<sup>23</sup>. Francisco Maria Aranguren-en sermoia ildo horretatik doa, irakurleak ikusiko duenez.

#### **4. Euskarazko testuaren orduko zabalkundea eta gaur egungo kontserbazioa**

Jarraian gure testuak duen beste bitxitasun bat aipatu nahi dugu. Izan ere, Francisco Maria Arangurek Tolosako<sup>24</sup> eliza ba-

<sup>21</sup> Gipuzkoako Artxibo Orokorra, 1. 18 281 Esp., lan honetatik hartua: Portillo, J. M., *Los poderes locales en la formación del régimen foral. Guipúzcoa (1812-1850)*, EHU, Bilbo, 1987, 30. or.

<sup>22</sup> Llanos Aramburu, F., *Ibidem*, 159-162 orr.

<sup>23</sup> Rubio Pobes, C., *Ibidem*, 19-20 orr.

<sup>24</sup> Tolosa liberalismoaren eragin-gune nabarmena izan zen. Esate baterako, sistema berriaren aldeko elkartea sortu zen eta milizia nazional oparoa antolatu (Gil Novales, A., *Las sociedades patrióticas (1820-1823). Las libertades de expresión y de reunión en el origen de los partidos políticos*, 1. lib., Tec-

tean ahoz eman zuen sermoia eta Gipuzkoako orduko agintari nagusiari, Villafuerteseko kondeari<sup>25</sup>, zabalkundea eman behar zitzaiola otu zitzaison. Esan eta egin. Gipuzkoako herrietara bidentalitako zirkular batetan –1820ko urriaren 16ko data du– sermoia goraipatu zuen, eta horrez gain, sermoiaren testu inprimatua erantsi zuen. Honela dio testuak:


En la Misa mayor del día de ayer oí al Vicario de esta Iglesia parroquial una esplicación sobre el objeto del establecimiento de la Milicia Nacional, en términos tan claros y acomodados a la inteligencia del pueblo en su idioma vascongado, que me pareció sería conveniente

---

nos, Madrid, 1975, 203 or.; Llanos Aramburu, F., *Ibidem*, 244 or.). Frantziskotarren komentua ere aipagarria da; bertako fraide bat, Miguel Antonio Letamendi, konstituzioaren aldeko sermoigilea izan zen, orduko dokumentuetan esaten denez (ikusi: Solaguren, C., *Los franciscanos vasco-cántabros en el siglo XIX: vicisitudes y nomenclador bio-bibliográfico*, Arantzazu, Oñati, 2007, 409-410 orr.; Madariaga Orbea, J., «Eclesiásticos liberales guipuzcoanos, 1820-1839», *Boletín de estudios históricos sobre San Sebastián*, 39, 2005, 314 or.; Tolosako Udal Artxiboa: SA N5 S1 L4 E1).

<sup>25</sup> Villafuerteseko kondeari buruz badago monografía bat: Cajal Valero, A., “*Paz y Fueros*”. *El Conde de Villafuertes. Guipúzcoa entre la “Constitución de Cádiz” y el Convenio de Vergara (1813-1839)*, Biblioteca Nueva, Madrid, 2002. Cajalen liburuan hurrengo laburpena irakurri ahal dugu, entseguaren 21. orrialdean, Villafuertesko kondearen bizitzari buruz: «El aristócrata tolosano Manuel José de Zavala, conde de Villafuertes, es una de las figuras más interesantes de Guipúzcoa, y por extensión de todo el País Vasco, en la primera mitad del siglo XIX. Además de varias veces Diputado General de la Provincia, Prócer del Reino en Madrid en 1834-1835, Corregidor Político (delegado del Gobierno) en Guipúzcoa en 1839-1840, el Conde de Villafuertes destaca por dos hechos significativos: fue la persona encargada de aplicar en Guipúzcoa la “Constitución de Cádiz”, durante los dos primeros períodos constitucionales de la historia española (1813-1814, 1820-1823); y en el tramo final de la guerra carlista de 1833-1839, fue miembro fundador de la “Junta de Bayona” formada por el Gobierno para apoyar la famosa Bandera “Paz y Fueros”, levantada en 1838 por el escribano Muñagorri con objeto de promover en el carlismo vasco el abandono de las armas y de la causa de Don Carlos a cambio de la confirmación de los Fueros».

difundir las mismas ideas por todos los pueblos (...) Habiendo, pues, pedido al citado digno y respetable Vicerio, a quien invité verificase esta esplicacion, el original de su plática preparada en el corto termino de dos días, la he hecho imprimir por estar a satisfaccion de mis deseos; y dirijo a V.S. [hemen herriaren izena doa] su exemplar para que cuide de dar la publicidad necesaria a unas ideas tan conformes al verdadero objeto del establecimiento de la Milicia Nacional.



Beraz, Gipuzkoako herri guzietara bidali zen euskarazko sermoi inprimituaren kopia.

Hala ere, eta gaur egunera etorriz, ez da testu bat ere ezagutua. Ez da ohiko bibliografia lanetan edo katalogoetan agertzen<sup>26</sup>, ezta literatura edo historia liburueta. Horren atzean ideia liberalen arrakasta falta egon daiteke; alabaina izan zuen zabalkundea aintzat hartuta zinez harrigarria egiten zaigu.

Testuaren izaera dela eta, pentsatzeko da bi lekutan aurkitzeko aukera izango dugula: artxiboetan eta liburutegietan. Eta horrelaxe da. Artxibo edo agiritegiei dagokienez, Tolosako Udal Artxiboa, esaterako, badago ale bat; hauxe da signatura (gaztelaniaz); S. E. N. nº3, S. 2. L. 1, E. nº3 (garaiko paperak biltzen duen liburukia da eta testua 162. orrialdetik aurrera dator; berrian, baita ere, lehen aipatutako zirkularra). Bestetik, liburutegien kasuan, besteak beste, Nafarroako Liburutegi Nagusia aipatu ahal dugu; signatura honekin testuaren kopia bat dago: FA(C<sup>a</sup>) 2-21 (sermoiaren testua, bakarrik; zirkularra ez dator).

## 5. Testuaren hizkera eta hiztegia

Sermoian erabilitako gaiak berba berriak eskatzen zituen. Eta euskararen kasuan arazoa erakargarriagoa da, liburu ez erlijiosoen gabeziaz ohartuz gero. Bestalde, esan behar, kontzeptu berriak erdaraz ezagutu eta ikasiko zituztela orduko herritar jantziek.

Irtenbideak bi ziren: maileguetara jotzea edo Larramendiren hiztegia erabiltzea (horren adibidea: José Félix de Amundarainek sasoi horretan bai Konstituzioari buruzko azalpenen liburuan, bai miliziari buruzko araudian Larramendiren hizte-

---

<sup>26</sup>Ezagutzen dugun aipamen bakarra hauxe da: Fernández de Casadevante, M. D., *La imprenta en Guipúzcoa (1585-1850)*, ADI, Madril, 2015, 352. dokumentua.

gia erruz erabiltzen du<sup>27</sup>; hala ere, berba berrien ondoan, mai-legua jartzen du, azalpen modura).

Gure testuari dagokionez, politikari dagozkion berbak topatzen dugu. Baino, oro har, ez da Larramendiren hiztegia erabiltzen, hau da, hiztegi hirukoitzaren eragina ez da nabarmenzekoa. Jarraian berba politiko garrantzitsuenen trataera jasoko dugu<sup>28</sup>.

Erdarazko *ciudadano* delakoa behin baino gehiagotan agertzen da gure testuan. Sermoigileak esaldi batean Larramendik jasotako ordaina erabiliko du, maileguarekin ondoan jarri gabe, azalpen modura: «Uritar onradu guciac». Beste batzuetan –hiru aldiz, hain zuzen ere– gaztelaniazko mailegu hutsa agertzen zaigu: «ciudadano honradu, «ciudadano guztiac, eta «Ciudadano onac».

Beste kontzeptu nagusiak direla eta, mailegua topatuko dugu, besterik ez. Horrela, «Corteac» (Larramendik «Urien batzarra» dakar), «Constitucioaren» (Larramendik «Neurquida» eta «Arauquida» dakartza), «Gobiernoaren» (Larramendik, besteak beste, «Erondea» eta «Gobernua» dakartza), «Diputadu» (Larramendik «Ecautua» dakar), «errepresentante» (Larramendiren hiztegian ez dator), «nacioaren» (Larramendik «Dierria» dakar), «milicia» (Larramendik, «Gudartea»), «erreglamentu» (Larramendik «Araudea», «Araua» eta «Adracaya» dakartza). Azkenik, bi kasutan euskarazko forma eta mailegua ipintzen ditu: «eman-quizun, edo contribucioac» (Larramendik «Taldiquida» eta «Am-batquidea» dakartza) eta «buru, edo capituluan».

---

<sup>27</sup> Larramendiren hiztegiak esparru politiko eta juridikoan eskainitako baliabideei buruzko azterketa eta ondorengoko eragina ezagutzeko ikusi: Gallastegi, C., Urrutia, A. eta Urrutia, E., *Larramendiren Hiztegigintza Juridikoa*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2007.

<sup>28</sup> Erdarazko berbategi liberalari buruzko azterketa lan honetan: Seoane, M. C.: *El primer lenguaje constitucional español*, Editorial Moneda y Crédito, Madrid, 1968.

**6**  
 beldur oriee eman dizquitzuten ez jaquin orien  
 irakurri balitzutze Milicia onenatz Cortear eguna  
 dituzten erreglamentu jaquinsnae , ez cinduzten  
 orrela enganatu , eta iearatuko ; an icusico za-  
 ten bigarren buru , edo capituluan , ceinzuze di-  
 ran errietako Milicia onen lan , eta obligacion  
 eta iracurri balute gure Constituciоaren iruretan  
 eta iruropetua bost garren articuloa an jacquin-  
 go zuten Erreguek berac eztuela escubidetik Mi-  
 licia au ateterminateko beren errietatik , premia au-  
 dietan espada ; eta orduan-ere ecin provincialak  
 campora atera dezaqueuala. Sosegatu zaitezte bada  
 gurasoae; ez zaiteztelak iearatu; ez eta ere belar-  
 tirik eman Cortean , eta Gobernaren gauecan ,  
 ecer aditu gabe , bear bada iracurri gabe zan-  
 den diran ez jaquin oyen esamesai; ceren , no-  
 la pensa dezaquezute , zuce becela beren fa-  
 milia eta umeak ditusten Diputadu errespon-  
 garri ayez ain beren semeoen kontrako legue-  
 bat emango luquetela , nundic gure nacio eroil  
 alchautero duten ; nundic nacioaren zorrak pagu-  
 ecko videa izango duten ; nundic necazarizari , fa-  
 brica , eta Comercioari indarra emangodioen ga-  
 eta eguna asmatzen ari diran nacioaren errep-  
 resentante oriee emango luquetela , ain nacioaren  
 konuracoa izango litzaquecan legue , guicias Sol-  
 dadu vici iazteco ori? Era note orduan bear-  
 guin , nore pagatu? ondo zequiten oyec guicte  
 Patriako guraso ayez obeditu-guezule bade on-  
 ggi eta beldur gabe , Cortear gure onerako egia-

**7**  
 ten ditusten legueai , oroitu zaitezte bein bafio  
 gueyagotan leku Santu onetatic esan dizute da-  
 naz ; ez dagoala alcartsun sociaderik legue  
 gabe ; ez lequerik obediencia gabe : eta bere  
 ama nacioak egundako legueak errespetatzen ez  
 dituana ez bacarric dala Espaniar charra , ba-  
 cican ere cristau gaistoa; onetan bertan bere be-  
 tiko condenacion irichitzen duana , San Pablo  
 ren beraren eseraen . *Qui potestati resistit Dei  
 ordinationi resistit. Qui autem resistunt ipsi siti  
 daunationem adquirunt. Rom. 3.*

Eta azquenik , nere cristauak ez gayteeen ,  
 ain arriñac izan , nun Europa guziak atmiratzen  
 duen gure gobernu adituaren aguindua erizma-  
 tu criticatu , eta cenzurareera atributen gueran  
*; Ah!* cembat obeto egungo guenduquean erre-  
 gutecea Ceruan eman deguiotela gure legue emale-  
 le oyei premia duten argua : eta guri berai  
 eta berac egundako legueai bear diegun erres-  
 petoz , *la obediencia*. Baño itz-eguin bear ba-  
 degu , itz-eguin dezagun ondo aditura , ondo  
 esaminatuta ; esan ditzagun gauzac diran bece-  
 la ez guere gogoac buruan ipinten dizquigun  
 becela : itz batean esan dezagun beti eguna eta  
 dana : izan gaitean onac , obedienteak , eta jus-  
 tuak , modu onetan Ciudadano onac lurrean , izan  
 ere gaitean egunen batean Ceruan. Amen.

**TOLOSAN:**

Liburuguille D. Juan Manuel la Lamaren  
 ECHEAN.

Bukatzeko, esamolde juridiko baten itzulpena aipatuko du-  
 gu: testuan «anciñaco demboratikan gure Provincian uso cos-  
 tumbrean cegoan» esaten da (erdarazko «era uso y costumbre»  
 adierazteko).

**6. Sermoiaren transkripzioa**

Jarraian sermoiaren testua emango dugu inprimatu zen be-  
 zala:

TOLOSACO SANTA MARÍAN

Urriaren amabost-garren egunean, milla zorzi-reun eta oguei garren urtean, DON FRANCISCO MARIA ARANGUREN bertaco Vicarioac eguindako platica.

Pone, Domine, custodiam ori meo, et ostium circumstantiae labiis meis, ut non declinet cor meum in verba malitiae. Psalmi 140: 4.

Jauna, ipini eguiozu arren guardia on bat nere aoari; eta alde gustietatic ondo ichia dagoan ate bat nere mingañari, ez dan gauzaric irten ez dedin nere aotic, berri gaistoetara età maliciasco itzetara nere viotza zabaldu ez dedin: Oyec dirade, nere Parroquiar maiteac, David Erregue Santuac gustiz viotcetic, eta gogo aundiarequin Jaungoicoari esaten zioscan itzac, eta eguiten cion oracioa, libratu zezan ao gaisto batec, mingaiñ ariñ, eta beguiratu-bague, edo imprudente batec eguin ditzaquean gaitz, eta calteetatic; ondo cequienac becela ez dala munduaan ezpata ain zo-rrotzic, eta gueyago ebaquiteen (sic) duenic, mingaiñ gaisto bat baño: ez dala erri, edo sociedade batean instrumentu gaistoagoric ao gaisto bat baño: ez badaqui, eta aditcen ez bazayo-ere, gustian zartu, gustian itz eguin, gustia criticatu, eta eche familietan negarra, desconfianza, tristeza, eta beldurra satcen duela: ondo zequienac becela mingaiñ gaisto batenzat, ez dagoala gauza onic, ez zuzenic, eta garbiric munduan; gauza gustiai billatcen diela belstasun, edo tacharen bat; aguintariai, gobernuari, gobernatzalleai, eta oyec eguiten ditusten legueai: gustia desfiguraten duela, batzuetan gueituaz, beste batzuetan guchituaz, eta beti gauzac goicoaz bera, edo be-

coaz gora naspillatuaz: beren aoac, Jesu-Cristoc berac Evangelio Santuan eracusten digun becela, gauzac diran eran, eta egua garbia esateco bai-cic iriqui bear ez litusqueten dembora berean, malicia oso-bat baicican ez dirala, Santiago Apostoloac eracusten digunez: *universitas iniquitatis*; ichaso beti gira-bira, eta iñoz ere sosegu, eta paqueric ez duen bat: *inquietum mare*: Eta orra, nere Parroquiar maiteac, zuen anima, eta corputzaren beraren oneraco gaur ematen dizutedan consejua, eta betico adieraci nai nuquean egua; prudenteac, eta beguiratuac izatea zuen itcetan; ez libertade gueyegui ematea zuen mingañai; gauzac diran becela esatea, éstatecoac

Badira; eta esan baño len esamiñatu, eta jaquiea ala ote diran, edo ez, *ut non declinet cor meum in verba malitiae*, David Santuac aïñ vio-tcetic Jaungoicoari escatcen cion becela. ¡Ah! garbi, eta bear becela esango baguenitusque beti gauza gustiac, cembat obeagoa izango litzaque mundua! ¡Cembait sentimetu, naigabe, eta pena guchiago izango guenitusque! Cembait sosegu gueyagorequin gaurco egunean berean izango li-raque, aditu deranez, aita, eta ama on, inocente, eta ez jaquiñ asco!

Erreinuko Diputaduac gure gobernu eta Erre-guearequin batera erabaqui dute, Egercitua guchi-tu dedilla; lenago eun eta oguei milla guizonezcoa zan toquian, ez dedilla orain berrogueita amar mi-llatican igaro: baño nola Nacioac gorde bear duen bere errespeto eta aunditasuna campoan, lenago becela campoco etsayac etortzera atrebitu ez ditecen; nola tropa vici labur au asco ez dan Erreinu-

co Gaztelu, Plaza, Portu ta mugac gordeaz gañera, Erreinuaren barrungo premiai beguiratceco; Erri Provincietako seguridadea, pauea, ta soseguba mantenceco; orregatic aguindu dute moldatu dedita Milicia nacional bat, eta ansetatu ditecela Milicia onetan emezorci urtetic berroguei ta amarrerañoco guizon guztiak Errietako ordena ona, ta pauea manten dezaten, tropa vicia bere lanean ari dan bitartean. Eta cein poz aundiarequin icusi bear guenduan nacio jaquinsu guziak daucaten, ta Espaniar aditu guziak aimbeste deseatzen zuten erreglamentu au! ¡Cembat bentaja ez datoziqio gure ama Espaniar! Nacioac, bere seme guziak armatuac icusiarequin, cer confianza ez du barrum-bean; cer itzala ematen ez die beste campoco Erreinuai, gauza gaistotara gurequin azartu ez diteten: cer icaira erri Provincietako gaistoai, icusiric ez daudela iñun ere seguro, erriric chiquienac daudela beren contra armatuac, Uritar onradu guziak beren gaistaqueriac castigatceco prestatuac: ta besteti cembait on, tropa vicia eun ta oguei millatikan berroguei ta amar millara jechiarequin: cembait mutill gaste beren gurasoen echetan gueldituko ez dira, len gurasoen pena aundiarequin soldadu cijoacenac: cembait beso, gure necazaritza, fabrica, ta lanteguiac ain premia dituenac, guelditzen ez dira libre! ta cer economia gure aimbeste zor dituan nacioaren aciendan: bada, egercitoa guchituarequin, guchitzen dira gastuac, ta cembait gastua dan chiquiagoa ala ere ariñagoac izango dira emanquizun, edo contribucioac. On oyez guzioc dacazqui legue osasunezko, ta estimagarri onec: baño aditcean beldurtu cerate: guraso triste ascoc pensatu dute, edo besteen batzuec pensatu

eraci diote, izan dedilla ez jaquiñez,edo oquerrago dana, maliciaz, oyec soldadu izatera dijoacela; aurqui seme guztiac eramango disquietela: aurqui gueldituco dirala gende gaste gabe beren lanetaraco; eta beste onelaco gauza asco ez diranac; eta bear-bada gure Constitucioa, eta gobernua desacreditatzeagatic. Bada jaquin ezazute, nere Parroquiar maiteac, ez duela Milicia nacional onec cer icusirican Erregue-guizonen mendeian dagoan Egercituarequin: alistamentu au ez dala tropa vici-racoa, baicican beren eche, eta erriac gaizquelle, lapur, eta gende gaistoetatic escudatu, eta defenditceco: errietaco ordena ona, eta paquea gorde-tceco ipintcen dirán ciudadano honradu, eta armatuac: servicio bat ciudadano guztiac distincio gabe egun bear dutena,edo beren edo besteren bidez, legueac ascatcen eta libratcen ezpaditu: aunciñaco demboratican gure Provincian uso costumbrean cegoan Milicia, beste erreglamentu,edo modu baten azpian bazan-ere: eta orañdic errieta urte-oro eguiten ziran Alardeac eracusten, eta goracitzen digitena. Ez pensatu bada oraingo alis-tamentu au tropa viciraco dala: ez nastu Milicia nacional au Erregueren escuetan urteoro nacioac ipintzen duen ejercito betico edo permanenteare-quin: oyec dirade nacio gustiaren defensaraco; baño Milicia nacionala beren errietaco sosegu, eta paque oneraco. Tropa vicia dago Erregueren escu disposiciona; Erreguec egun dezaque arzaz nay duena; aldatu erri batetic bestera, Plaza batetic, Provincia, Erreynu batetic bestera; baño ez onela Milicia nacionalaz; oyec beren eche, eta errieta egotecoac dira. ¡Ah! baldin beldur oriec eman diz-quitzuten ez jaquin oriec iracurri balitzte Milicia

onenzat Corteac eguin dituzten erreglamentu jaquinsuac, ez cinduzten orrela engañaatu, eta icartu; an icusico zuten bigarren buru, edo capituluan, ceinzuec diran errietako Milicia onen lan, eta obligacioac: eta iracurri balute gure Constitucioaren irureun, eta irurogueita bost garren articuloa an jaquingo zuten Erreguec berac eztuela es-cubideric Milicia au ateratceco beren errietatic, premia aundietan ezpada; eta orduan ere ecin provinciatik campora atera dezaqueala. Sosegatu zaitezte bada gurasoac; ez zaiztela icaratu; ez eta ere belarriric eman Corteen, eta Gobiernoaren gaucetan, ecer aditu gabe, bear bada iracurri gabe zartzen diran ez jaquin oyen esamesai; ceren, nola pensa dezaquezute, zuec becela beren familia eta umeac ditusten Diputadu errespetagarri ayez ain beren semeen contraco legue bat emango luquetela, *¿nundic gure nacio eroria alchatu* duten; nundic nacioaren zorrac pagatceco videa izango duten; nundic necazarizari, fabrica, eta Comercioari indarra emango dioten gau eta egun asmatcen ari diran nacioaren errepresentante oriec emango luquetela, ain nacioaren contracoa izango litzaquean legue, guciac Soldadu vici izateco ori? Eta norc orduan bear eguin *¿norc pagatu?* ondo zequiten oyec gucioc Patriaco guraso ayez obeditu guiezute bada ongui eta beldur gabe, Corteac gure oneraco egiten ditusten legueai, oroitu zaitztez bein baño gueyagotan lecu Santu onetatic esan dizute danaz; ez dagoala alcartasun sociedaderic legue gabe: ez legueric obediencia gabe: eta bere ama nacioac eguindako legueac errespetatcen ez dituana ez bacarric dala Espaniar charra, baicican ere cristau gaistoa; onetan bertan bere

betico condenacioa irichitzen duana, San Pabloren beraren esaeran. “Qui potestati resistit Dei ordinationi resistit. Qui auten resistunt ipsi sibi dabnatiō nem adquirunt. Rom. 3.

Eta azquenic, nere cristauac ez gaytecen, ain ariñac izan, nun Europa guztiac atmiratzen duen gure gobernu adituaren aguinduac erizmatu criti- catu, eta cenzuratcera atrebitzen gueran ¡Ah! cem- bat obeto egungo guenduquean erregutcea Ce- ruari eman deguiotela gure legue emalle oyei pre- mia duten argua: eta guri berai era berac eguindako legueai bear diegun errespetoa eta obediencia. Baño itz-eguin bear badegu, itz-eguin dezagun ondo aditura, ondo esamiñatuta; esan ditzagun gauzac diran becela ez guere gogoac buruan ipinten dizquigun becela: itz batean esan dezagun beti egua eta dana: izan gaitean onac, obedienteac, eta justuac, modu onetan Ciudadano onac lurrean, izan ere gaitean egunen batean Ce- ruan. Amen.

TOLOSAN:

Liburugille D. Juan Manuel la Lamaren  
ECHEAN.

*Cesar Gallastegi eta Javier Esteban Ochoa de Eribe*